

# **IRABAZIAK LORTZEKO ASMORIK GABEKO KIROL ELKARTE ETA TALDEEI, ZUMAIA.NET DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK.**

## **1.- XEDEA**

Oinarri hauen helburua da, irabaziak lortzeko asmorik gabeko kirol elkarte eta taldeei, Zumaia.net diru laguntzak izendatu eta emateko bidea arautzea, hauek kirol arloaren barneko jarduera eta hedaketa bultzatzeko ekintzak antola eta bidera ditzaten, eta duten interesa eta eragina Zumaiako Udalaren xedeekin bat datozen neurrian.

## **2.- ONURADUNAK**

Oinarri hauek araututako diru laguntzak jasotzeko aukera izango dute, indarrean dagoen legediaren barne sortuta dauden eta dagokien errejistroetan izen emanda duten irabaziak lortzeko asmorik gabeko talde eta erakundeek aurreko oinarrietan aipatutakoaren arabera ekintza, egitarau eta ekimenak burutzeko asmoak izanik.

Ez dira kontutan hartuak izango Zumaiako kokatuta ez dauden elkarteek aurrera eramandako egitasmoak.

## **3.- ESKAERAK**

Zumaiako Udaleko Kirol Zerbitzuetako departamentuak prestatutako ereduaren arabera aurkeztuko dira eskaerak (I. eranskinean ematen da eredu hori).

Arau-oinarriak eskuratzeko, agiriak eskuratzeko eta informazioa eskatzeko, jo helbide honetara: Kirol Zerbitzuen departamentua, Kantauri kaleko 13. zenbakia. Turismo bulego eraikina.

Eskabideak aurkezteak, deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

#### **4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Eskaerak I. Eranskinaren jarraibideen arabera aurkeztu beharko dira eta eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Diru-laguntzaren eskaera normalizatua, I. eranskinean ematen denaren modukoa, behar bezala beteta.
- b) Jardueraren memoria
- c) Elkarte eskatzailearen ordezkari edo arduradun den pertsonaren NANaren fotokopia.
- d) Eusko Jaurlaritzako elkartearen eta entitatearen erregistroko inskripzio-ziurtagiria.
- e) Identifikazio fiskaleko kodea adierazten duena giriaren fotokopia.
- f) Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean betetzen direla kreditatzen duen agiria.
- g) Instituzio eta erakundeetan egin diren diru-laguntza-eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren diru-laguntzena.
- h) Zinpeko aitortpena, diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, amaierako seigarren xedapenak arautzen duen ildotik.
- i) Elkarte edo entitatearen urteko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.
- j) Federakuntzatik jasotako agiriak, behar bezala ziurtatuta egon beharko dute.
- k) Foru Aldundiak eskola mailako kirolari zuzendutako araudia bete.

#### **5.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA**

Eskaerak Udalaren Erregistro Orokorrean, 10 egun baloidun epean, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita. Epearen amaierako eguna igandea edo egun baliogabea balitz, hurrengo egun balioduna izango da epe horren amaierako eguna.

Egiaztatzen bada aurkeztutako dokumentazioa ez dagoela osorik edo dokumentazio horrek ez dituela betetzen oinarri hauetan adierazitako baldintzak, pertsona interesdunari eskatuko zaio akats formalak egutegiko hamar eguneko epean konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko. Adieraziko zaio, hori egiten ez badu, ezetsizat joko dela bere eskaera, eta hura artxibatuko dela, bestelako tramiterik egin gabe, indarreko araubideak adierazten duen moduan.

## 6.- ESKAERAK BALORATU ETA LAGUNTZAK NORI EMAN HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

a) Lizentzia bakoitzeko

Mutilak:	1,0 puntu.
Neskak:	1,5 puntu.
Ezinduak:	1,5 puntu.

b) Taldeak, lehiaketa esparruaren arabera:

- |                                |           |
|--------------------------------|-----------|
| - Probintzia esparrua.....     | 05 puntu. |
| - Autonomi esparrua.....       | 10 puntu. |
| - Autonomiarteko esparrua..... | 15 puntu. |
| - Estatuko esparrua.....       | 25 puntu. |

Banakako kirolak direnean, taldeak era honetan osatuko dira:

- Pilota ( pilotalekukoa) , aldakera guztietan, maila bereko gutxienez lau jokalaria behar dira talde bat osatzeko.
- Piraguisimo, Txirrindularitza, : taldeko izaera, maila ezberdinekin parekatzen da.

c) Taldeei, jarduten duen entrenatzaile agiri bakoitzagatik:

- |  |           |
|--|-----------|
| - Gaztetxo-Begirale mailako agiria.....  | 01 puntu. |
| - Probintzia mailako entrenatzailea..... | 03 puntu. |
| - Nazio mailako entrenatzailea.....      | 06 puntu. |

d) Titulua atera duten entrenatzaile agiri bakoitzagatik:

- |  |           |
|--|-----------|
| - Gaztetxo-Begirale mailako agiria.....  | 01 puntu. |
| - Probintzia mailako entrenatzailea..... | 03 puntu. |
| - Nazio mailako entrenatzailea.....      | 06 puntu. |

e) Taldeek, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo, egutegi ofizialaren barneko Izaera Bereziko Lehiaketetara ( eskualdeko edo txapelketa faseak direla eta) egiten dituzten irteerak kontutan hartuak izango dira, puntu banaketa era hontan egingo delarik:

Puntuak:

$$\frac{\text{Km. Kopurua ( joan – etorri) } \times \text{ lehiakide kopurua } \times \text{ txapelketa egun kopurua}}{2000}$$

f) Kirol Materiala ( kirol jantziak ezik)

Material erosketan erabilitako 600 € bakoitzeko 01 puntu

g) Euskara arloan.

- |  |          |
|--|----------|
| - Euskara Sasoian programan parte hartzea.....                           | 5 puntu. |
| - Udalarekin ahozko nahiz idatzizko komunikazio guztiak euskaraz izatea. | 1 puntu. |
| - Kartel, iragarki eta antzekoak euskaraz ateratzea.....                 | 1 puntu. |
| - Bazkideekiko idatzizko komunikazioetan euskarari lehentasuna ematea.   | 1 puntu. |
| - Entrenatzaileen %50 edo gehiagok entrenamenduetan euskara erabiltzea.  | 2 puntu. |



## **10.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA HURA ORDAINTZEKO MODUA**

### **Zenbatekoa.**

Dirulaguntzaren zenbateko osoak ezingo du izan, inoiz ere, bera bakarrik edo beste herri-administrazio eta erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzekin batuta, onuradunak egin behar duen jardueraren kostuarena baino handiagoa.

Egitaraua edo jarduera garatzeko orduan, benetako kostua aurkeztutakoa baino gutxiagoa baldin bada, onartutako dirulaguntza benetako gastuaren neurrian gutxituko da.

Urteko dirulaguntza kontzeptuan jasotako kopurua, behin betiko dirulaguntza erreala baino gehiagokoa izango balitz, diferentzia itzuli beharko litzateke.

### **Ordainketa.**

Ekintzen memoria eta frogagiriak egiaztatu ondoren, diru-laguntza emango dela jakinarazi eta dagokion diru kopurua ordainduko zaio.

Banku-transferentzia bidez egingo da dirulaguntzen ordainketa, erakunde onuradunaren titularitatepeko kontu batean.

Deialdiko xede diren ekintzak egiteko behar diren diru-zenbatekoen ordainketa aurreratuarik egitea baimen dezake alkate-udalburuak. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak 34. artikulua egiten duen araupenaren arabera egingo dira aurrerapen horiek.

## **11.- DIRULAGUNTZEN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ONURADUREN BETEBEHARRAK.**

Diru-laguntza nola erabili den justifikatzeko oinarri espezifiko hauei dagozkien oinarri orokorren arabera egingo da, bai eta diru-laguntza deialdian jasotakoaren arabera ere. Zumaiaiko elkarteak, Zumaiaiko Udalak eskatzen dion kultur edo kirol-ekitaldi guztietan parte hartuko du.

Zumaiaiko udalak nahiz beste edozein administrazioak eskatzen dituen datuak edo behar adina informazio osagarri ematea.

Zumaia.net izena, kirol materialean eta lehikatetan erabiliko dituzten elastikoetan eta txandaletan ikusteko moduan jartzea.

Gastuak justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Justifikazio-memoria kirol eta ekonomikoa, jatorrizko egiaztagiriez osatua.
- Aurkeztutako egiaztagirien (fakturen) zerrenda zenbakitua.
- Federakuntzatik jasotako agiriak, behar bezala ziurtatuta egon behar dute.

## **12.- PUBLIZITATEA**

Oinarri hauen baitan emandako dirulaguntzen onuradun diren entitateek behar bezala iragarri behar dute, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz, beren egitarauak, jarduerak, inbertsioak edo direnik diren ekitaldiak dirulaguntza publikoak jaso dituztela.

## **13. ARAUBIDEA**

Deialdi honek aurreikusi gabeko alderdi guztietan, betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzeko buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean), lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege-dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean), Zumaiaiko Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra

Zumaian, 2011ko uztailaren 22an



## 2.- LEGEZKO ORDEZKARIA / REPRESENTANTE LEGAL

<i>Izena</i> Nombre			
<i>Kargua</i> Cargo		<i>NAN</i> DNI	

## 3.- DIRU LAGUNTZA ESKATZEKO INPRIMAKIA.

TALDEA:

HELBIDEA:

I.F.K.:

JARDUERA:

1. 2010-10-1etik 2011-10-1era bitarteko jarduerari dagozkion xehetasunak dagokion Federazioak ziurtatuta (\*):

- Lizentzia kopurua : Mutilak:

Neskak:

Ezinduak:

- Talde kopurua ( maila eta lehiaketa esparrua zehaztuta)

1. ....
2. ....
3. ....
4. ....
5. ....
6. ....
7. ....
8. ....
9. ....
10. ....
11. ....

- Gaztetxo- Begirale mailako entrenatzaile-jardule agiriak.....  
.....

- Probintzia mailako entrenatzaile-jardule agiriak .....  
.....

- Nazio mailako entrenatzaile-jardule agiriak .....  
.....

- Formakuntzako agiriak.....  
.....



**4.- HERRI MAILAN PROPOSATU DIREN HELBURU OROKORRAK / OBJETIVOS GENERALES QUE SE PLANTEAN PARA EL MUNICIPIO**

	<b>Helburu Orokorrak/ Objetivos generales</b>
A.-	
B.-	
C.-	
D.-	

**5.- ERAKUNDEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZU MOTAK / TIPOS DE SERVICIOS QUE PRESTA LA ENTIDAD**

	<b>Zerbitzuak / Servicios</b>
A.-	
B.-	
C.-	
D.-	

**6.- ERAKUNDEAK URTEAN ZEHAR, ZUMAIAN ESKEINIKO DUEN PROGRAMAZIO EDO EKINTZAK / PROGRAMACIÓN-ACTIVIDADES QUE OFRECERÁ A LO LARGO DEL AÑO EN EL MUNICIPIO DE ZUMAIA**

	<b>PROGRAMAZIOA ETA EKINTZAK / PROGRAMACIÓN Y ACTIVIDADES.</b>
A.-	
B.-	
C.-	
D.-	

Zumaia, ..... ren .....a.

Sinadura